

Xabier  
**Arzalluz**  
• P E R T S O N A I A •



# «ETAk beste Xiberta bat antolatu behar luke»

Aterkiaren eszena ospetsua burutik pasa zaidanean, baratzean jo ta su dabilela esan dit. Orduan ulertu dut bere arrakasta. Ez duzula ulertzen? Ez al daukazu inguruan paseatzera aterki eta guzti ateratzen den baratzealerik?

SUSTRAI COLINA

Argazkiak: Iñigo Azkona

2004an utzi zenuen EBBko buruzagitza. Orduetik hona zer sentimendu eragiten dizu politikak?

104 urte bete zituen gizon harena gertatzen zait. Omenaldia egitera joan zitzaizkion agintari eta kazetariak, eta bere seme, biloba eta birbilobez inguratuta zegoela, zer moduz sentitzen zen galdetu ziotenean “oso bakarrik” erantzun omen zuen. Gertu-gertuan zeukan familiaz ohartarazi zutenean bizargina, apaiza, postaria eta botikaria aspaldi hil zitzaizkiola eman zuen arrapostu, eta honezkerok ez zela bere denborakorik geratzen. Horixe pasatzen zait politikan. Lider aldaketa etengabeak daude, eta jende desberdina. Ez dut uste Iturgaitzetik Basagotirako saltoan talentuz asko osatu direnik. Ez nuke esango Patxi Lopez Redondo Terreros baino azkarragoa denik. Pentsa, nire alderdian ere iritzi eta sentimenduetan oso eginda dagoen jendea dago, eta zaila izaten da horiekin denetan ados egotea.

Min eman zizun zure ondorengoa zuk izendatu zenuena ez izatea?

Nik ez nuen inor izendatu, kontuz ibili nintzen. Nahi izatera manipulatu nezakeen aferan nahi nuena atera zedin, baina horretarako

**“Imazek ez du sekula enpresario izaerarik izan. Plastikoa denda bat jarri zuen, jarri eta gutxira porrot egin zuena, eta orain bat-batean, Petronor-eko buru! Nondik nora? Zeren truke? Oso arriskutsua iruditzen zait gazteek politikan halako promozio bideak ikustea”**

estatutuen aurka egin beharra neukan, eta hori ez dut behin ere planteatu. Tamalez, beste uste eta interes bateko jendea agertu zen eta irabazi egin zuten. Ados egon ala ez, horren aurka ezin dut ezer egin, hala izan zen eta kito. Hori bai, denborak arrazoia eman didala uste dut.

Orduetik hona EAJ barruan bi EAJ daudela esaten da...

Korronte horiek lehen ere bazeuden. Nik Azkuna, Atutxa edo Ardanzen korrontearekin bat egin dudala uste duzu, ala? Alderdi batekoak gara, baina askotan kontrañoa dirudi. Nire garaian, ordea, bai nik bai EBBko oso iritzi garbiak genituen eta jende gehiena gure alde zegoen. Horretan datza lidergoak. Lider bat gidari bat da, eta alderdikide arrunten senarekin bat egitea ezinbestekoa du. Hori hala den bitartean, barne-korronteak barebare ibiltzen dira, harrotu gabe. Zergatik? Zure aurkako ezer saiatuz gero galduko luketelako, eta galtzea ez zaiolako inori komeni. Ez dago besterik.

Zeri esker mantentzen da hierarkia hori?

Konpromisoari eta zure ideiekiko leialtasunari esker. Gerora liderrak izango ginen guztiak sator-bideetatik ibili ginen Frankismo garaian, ETAkoek baino eskandalu gutxiago eginez, baina hantxe. Gu ez ginen lehen lerroa anbizio pertsonalarengatik atera, herri hau zainetan generamalakoa baizik. Abertzale gehienon kasuan, gainera, sentimendu horiek azkeneko eraman ditugula uste dut. Ez zen denen kasua izan ordea. Ikusi ditut buruzagi sozialistak anbizioak eta diruzaletasunak ustelduta, eta horrek ez dauka sozialismoarekin zerikusirik. Hori edozein alderditan gerta liteke, eta beldur naiz, jendea usteltzen has-tean partiduak ere usteltzen joaten direlako.

## Nortasun agiria

1932ko abuztuaren 24an sortu zen Azkoitia (Gipuzkoa). Zuzenbidean eta filosofia eta letretan lizentziatua, 1977tik 1979ra Espainiako kongresuan legebiltzarkide izan zen, 1980tik 2004ra EAJko lehendakaria izan zelarik. Erretiratuta dago, egun.

## ☉ Xabier Arzalluz

**Zer esan nahi duzu, helburu pertsonalak helburu kolektiboen gainetik jartzen dituen politikari asko dabilela?**

Sekula baino gehiago. Alderdi abertzaleon helburua euskal estatu askea sortzea izan behar da. Hori sortzeko sakrifizio pertsonal asko egin behar da, eta horretan gabiltzanok usteltzen bagara ez dugu behin ere gure helbururik beteko. Autonomia lortu berritan gudari zahar batek hala esan zidan: “Gazta eder bat lortu dugu, baina saguz beteta dago. Ikusiko duzu, errekarra bota beharko dugu”. Nik ez nuen ulertzen hainbeste kostatakoari hola eta hola muzin egitea, eta saguei tranpak jarriko genizkiela esan nion, baina berehala eman zidan sententzia: “Gazta daukagun bitartean sagua besterik ez dugu edukiko”. Hala da, saguak deitu gabe hurbiltzen dira gazta-usainera. Horretan datza politikaren funtsak, gazta errekarra bota gabe saguak uxatzean.

**Zuk sagua uxatu zutela pentsatu zenuen Josu Jon Imaz EBBko buru izatetik Petronor-eko buru izatera pasa zenean?**

Orain bere bidea jarraitu beharko du, baina bere garaian esan nuen bezala, Imazek ez zion batere onik egin gure gaztediari. Normala da jendeak salto horri errezeloz begiratzeta. Imazek ez du sekula enpresario izaerarik izan. Kimikaria izan eta plastiko denda bat jarri zuen, jarri eta gutxira porrot egin zuena, eta orain bat-batean, Petronor-eko buru! Nondik nora? Zeren truke? Oso arriskutsua iruditzen zait gazteek politikan halako promozio bideak ikustea.

**Saguez ari garela, Ibarretxe alderdiak saldu du?**

Ez dut esango alderdiak saldu duenik, baina alderdiki-

## **Alderdiko etorkizuneko liderra**

**“Nik badaukat bat baina zergatik esan. Tira, luma batzuk galdu ditu, baina oraindik kukurruku egiten duen bakarra da, eta kukurruku ez bada kikiriki!”.**

de batzuek bere aurka egin dutela ukazina da. Ez dut ulertzen nola bota litekeen hautagai bat kalera kanpaina egitera alderdi osoa bere atzetik egon gabe. Oso gogorra egiten zaizkit kanpainen entzun direnak eta zenbait Ibarretxeren aurka egin dituztenak. Meritu handia du Ibarretxek, etxeko zati batek ahultzen saiatu arren, hauteskundeak irabazi dituelako. Askok sufritu duela uste dut, baina emaitzek argi eta garbi erakusten dute uneotan Ibarretxe dela babes handiena duen euskal politikaria.

**Baina Ibarretxe ere belarriak makurtuta etorri zen Madrildik herri galdeketari ezezkua eman**





ziotenean. Iritsiko da EAJk Espainiako Estatuari planto egingo dion eguna?

Gauzak doazen moduan bai. Esaterako, alderdien legea atera zutenean, garbi ikusi nuen “gaur hauek, bihar gu” zela estrategia, eta behin baino gehiagotan pasa zitzaidan burutik planto egitea. Lege hori ez zuten asmatu terrorismoagatik edo segurtasunarengatik, Lizarra-Garaziren ostean, Eusko Legebiltzarrean Ezker Abertzaleak Ibarretxeri botoa ematen ziolako baizik. Ikusten zuten, abertzaleak elkar hartuz gero, autodeterminazio eskubidea laster etorriko zela, eta horri aurre egiteko ejerzitua baizik ez daukatenez ba... Europara begiratzen baduzu, Baltikotik Kosovoraino, begira zenbat estatu berri sortu diren gu baino herri entitate gutxiagorekin. Nik garbi daukat gure unea iritsi dela, eta gertatzen zaizkigun transferentzia apurrak negoziatzen ibiltzea baino urrats kualitatibo bat eman behar dela euskal estatua sortzeko bidean. Beste gauza bat da, oraindik batzuek pentsatzea unea ez dela iritsi, edo ez zaiela komeni unea iristerik, edo oraingo egoeran oso eroso daudela... Gure madarikazioa da ez garela ados jartzen, eta etxe-koak kanpokoak baino gehiago gorrotatzen ditugula. Nik ez nuke nahi nire alderdia pistolekin ibiltzea, baina zergatik ez onartu pistolekin dabilena ere abertzalea dela? Nik oso garbi daukat, ez nago ETA-rekin, baina besteekin ere ez.

**Oro har, klase politikoak geroz eta kontsiderazio gutxiagorekin hitz egiten du ETAz, baina konponbidearen parte izan beharko du, ezta?**

Politikoki zuzenak gain hartu digu, eta ematen du inor ez dela atrebitzen ETArekin hitz egin behar dela esatera. Nik ahal izan dudana guztietan hitz egin dut eurekin. Ez hitz egitea azkenaren hurrena da. Baina demokrazia barru-barruraino ustelduta daukagu, eta horri aurre egin behar zaio.

## EAJ erregionalista?

**“Une puntual batean egon liteke zuzendaritza erregionalista bat baina alderdi hau bere gorputzaren osotasunean erregionalista bihurtzea ezinezkoa da. Begira nola bukatu duen Imazek. Bide batez, alderdian bere posturen aldeko norbait balego, aldez aurretik jakin dezala ez lukeela askorik iraugo”.**

Ezin da onartu Ibarretxe auzipetuta egotea Ezker Abertzalearekin hitz egiteagatik, ezin da onartu Ezker Abertzalea hauteskundeetara ez aurkeztu ahal izatea, ezin zaie utzi legeak euren komenientziara moldatzen. Herri batek politikoki aske bizitzeko kontzientzia eta nahia garatzen duenean, bere aurkariak ez daukate zereginik, goiz ala berandu lortuko du. Hori da Madrilen ulertzen ez dutena, hori eta ETA-ren aurkako borroka galtuta daukatela. Berrogei urte dira barne ministroek ETA-ren amaiera data iragartzen digutela, baina hor daude. Noiz ulertuko dute herri honekin duten arazoa konpontzeko beste bide batzuk landu behar dituztela? Sozialistak PPren eskuetatik askatzen direnean? Guk ezin dugu horren zain egon.

**Esatea da errazena...**

Ez dut uste aipatzen den polo soberanista denik bidea. Pistolak tartean dauden artean, ez da polo soberanista izango, zulo soberanista baizik. Hori hala, eta ETA suntsitzea ia ezinezkoa dela jakinik, ETAk beste Xiberta bat antolatu beharko lukeela uste dut, euskal alderdi guztiak deitu, armak uzteko prest dagoela esan, eta aurrera begirako estrategia denon artean diseinatzeko ETA beste agente politiko bat gehiago bihurtu. Ez dadila sartu Espainiako Estatuarekin negoziatzera, bote-rearentzat nahi duena egiteko alibi bat den bitartean, konponbiderik ez dute topatuko eta. Garbi dago bakoitzak bere txiringitoari begiratzen diola, baina ez dezagun ahaztu EAEn gehiengo abertzalea daukagula, eta Nafarroan eta Iparraldean ere tendentzia abertzalea goraka ari dela. Erabili dezagun indar hori behingoz. Suzia piztuta dago, eta aurretik bidea daukagun arren, ez gaude desesperatuta. Hasi gaitzen bidea egiten leku erosoetan, eta ikusiko dugu nola iristen garen leku malkartsuenetara. Dena kolpetik egin nahi izatea ez da utopia, tontakeria baizik.

**ZIO** ● ZIENTZIA ● IRAKURLE ● ORORENTZAT ● ● ● ●

Euskal Herriko Unibertsitatetako Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Ororentzat). Bidaiko Foru Aldundien laguntzari esker urtean urte osatuz doa ZIO bilduma. Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskaraz eta jakintza utarturik jartzen dira adonaren esku.

**gure artean euskaraz**

**BFA DFB**

Bidaiko Foru Aldundiak  
Diputación Foral de Bizkaia



## AZKEN HITZA

### Oposizioa

“Urtetan egin dugu oposizioa. Pentsa, Madrilen Aznarrekin paktatzera ere heldu ginen, eta nik horrekin ez daukat antzik ezta bibotean ere. Guk herri hau sendotzeko beharra ikusten genuen, eta horretarako, ahal beste ahalmen eta konpetentzia behar genituen. Horiek nola lortzen dira, tiroka ala negoziatuz?”.

**Gizarteak politikan eta politikariengan geroz eta konfiantza eta interes gutxiago dauka, ordea.**

Politika zikintzen ari da, eta hitz gehiegi eta pragmatismo gutxiegiarekin jardunez gero normala da jendea aspertzea. Baina irtenbidea izan daitekeenaren hasiera sumatzen hasten bada, berehala bilakatuko da asperdura ilusio. Politika beti da sakrifizioa, zeurekoikeria bazter utziz, kolektiboaren alde egitea, eta gaur egun, jendeak ondo bizi nahi du. Oraintsu arte, ikasketak bukatu orduko Audia eta pisua erostea eskubide bihurtu zirela ematen zuen, ez zuen inork inor jasaten, denak anbizio eta standing-arekin itsututa, oso bizimodu edonistan geunden. Baina horrek guztiak porrot egin du, goitik hasita beheraino, eta batek daki zer ekarriko duen oraingo krisiak. Desesperazioak gauza asko eragiten ditu, eta jendeak ikusten badu etxean ogia falta dela, denetik pasa liteke. Ez ahaztu Frantziako iraultzaren gibelean gosetea eta egonezina zeudela. Ez dakit krisi honekin zer gertatuko den, baina garbi dut krisiak eta egonezinak ez direla beti

txarrak izaten aurrerapenak lortzeko, ezta gurean ere.

**Zu bezalako jendeak rol garrantzitsu bat izan dezake balizko konponbide horretan?**

Erretiratutakook esperientzia daukagun heinean baietz uste dut. Baina ez nuke ez dago-kidan tokian sartu nahi, horregatik ez diot aholkurik ematen eskatzen ez dizkidanari. Behar nauenak badaki non nagoen. Bitartean piper eta tomate mordoak landatu dut, denda bat zabaltzeko beste, eta oso gustura bizi naiz. Gauza askorekin ez nago ados, baina edadearen ajea izango da, ez baitut sekula ikusi enpresa semearen esku utzi duen aitarik semearen kudeaketarekin erabat gustura dagoenik. Gure esperientzia eta sentimendua besteen *praxisean* ikusi nahi baditugu oker goaz. Baina abertzale bezala ez nago batere pesimista. Abertzaletasunaren birusa herri honen zainetan sartuta dago, eta hemendik ez bada handik, gaur ez bada bihar, atera egingo da. Horretan ez daukat dudarik. ■

### Hitzak biguntzen

**“Ez zait gustatzen hitzak biguntzea. Zergatik esaten zaio erabakitze eskubidea autodeterminazioari? Zer da soberanista izatea? Independentista zara ala ez!”.**